



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

OLABERRIKO UDALEKO DIRU-LAGUNTZEN ESTRATEGIKOA **PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**

Sektore publikoaren finantza-jardueraren zati handi bat diru-laguntzen bitartez bideratzen da, finantza-arloko laguntza-neurriak baliatuz pertsona eta erakunde publiko edo pribatuen eskari sozial eta ekonomikoei erantzuteko.

Una parte importante de la actividad financiera del sector público se canaliza a través de subvenciones, con el objeto de dar respuesta, con medidas de apoyo financiero, a demandas sociales y económicas de personas y entidades públicas o privadas.

Diru-laguntzen Lege Orokorraren oinarrian dauden printzipioak Aurrekontuen Egonkortasunerako Legeko printzipioetan daude oinarrituta, eta gardentasuna da printzipio horietako bat.

Uno de los principios que rige la Ley General de Subvenciones, que están inspirados en los de la Ley de Estabilidad Presupuestaria, es de la transparencia.

Gardentasun handiago horrek, legean jasotzen diren askotariko tresna ugariekin batera, berekin dakar zuzenean efizientzia- eta eraginkortasun-mailak handitzea diru-laguntzen bidezko gastu publikoaren kudeaketan. Alde horretatik, diru-laguntzei buruz informazio gehiago izateak desagerrarazi egingo ditu merkatuan eragina izan dezaketen distorsioak eta interferentziak, eta, gainera, herri-administrazioen jarduerak elkarren osagarriak eta koherenteak izatea erraztuko du, eta edozein gainjarpen-mota galaraziko.

Esta mayor transparencia, junto con la gran variedad de instrumentos que se articulan en la ley, redundará de forma directa en un incremento de los niveles de eficiencia y eficacia en la gestión del gasto público subvencional. En este sentido, una mayor información acerca de las subvenciones hará posible eliminar distorsiones e interferencias que pudieran afectar al mercado, además de facilitar la complementariedad y coherencia de las actuaciones de las distintas Administraciones públicas evitando cualquier tipo de solapamiento.

Eraginkortasuna hobetzeko ildo horretan, legeak dio, halaber, beharrezkoa dela diru-laguntzen plan estrategikoa egitea, lotura bat ezar dadin, alde batetik, lortu nahi diren helburuen eta ondorioen eta, bestetik,

En esta línea de mejora de la eficacia, la ley establece igualmente la necesidad de elaborar un plan estratégico de subvenciones, que introduzca una conexión entre los objetivos y efectos que se pretenden



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

aurreikusgarri diren kostuen eta haien finantzazio-iturrien artean, diru-laguntzen bidez aurre egingo zaien behar publikoak eta bitarteko erabilgarrien aurreikuspenak elkarri egokitzeko, bitartekook sortu baino lehen eta hainbat urtetarako egokitu ere.

conseguir, con los costes previsibles y sus fuentes de financiación, con el objeto de adecuar las necesidades públicas a cubrir a través de las subvenciones con las previsiones de recursos disponibles, con carácter previo a su nacimiento y de forma plurianual.

Horregatik, Udal honek Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu du; planeko artikulua honako hauek dira:

Por ello, este Ayuntamiento aprueba el Plan Estratégico de Subvenciones cuyo articulado figura a continuación.

1. KAPITULUA

CAPÍTULO 1

XEDAPEN OROKORRAK

DISPOSICIONES GENERALES

1. artikulua.-

Artículo 1.-

Udal honek 2024-2027 epean diru-laguntzak erabaki behar dituenean, plan honetan aurreikusitakoari jarraitu beharko dio.

El establecimiento de subvenciones por este Ayuntamiento durante el periodo 2024-2027 se ajustará a lo previsto en el presente Plan.

2. artikulua.-

Artículo 2.-

Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzak eraginkorki erabakitzeko, beharrezkoa izango da diru laguntzak emateko Olaberriko Udalaren Ordenantza orokorrak aurreikusten duenaren arabera jardutea, haiek nola eman arautzeko oinarriak onartzea, bai eta urteko deialdiak onartzea ere, eta azken horietan urte bakoitzeko udal-aurrekontuetako esleipen egokiak jasotzea.

El establecimiento efectivo de las subvenciones previstas en este Plan será acorde con la Ordenanza general reguladora del régimen de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Olaberria, requiriendo asimismo, la aprobación de las bases reguladoras de su concesión y la aprobación de convocatorias anuales, incluyendo en éstas las consignaciones correspondientes en los Presupuestos municipales de cada año.

3. artikulua.-

Artículo 3.-



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

Diru-laguntzak erabakitzeko, nahitaezko baldintza izango da aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzea; horregatik haiek nola eman arautzeko oinarriak eta onartu beharreko aurrekontu-esleipenak helburu horietara egokituko dira uneoro.

El establecimiento de subvenciones queda supeditado al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, por lo que las bases reguladoras de su concesión y las consignaciones presupuestarias que se aprueben se acomodarán en cada momento a dichos objetivos.

4. artikulua.-

Artículo 4.-

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez du berekin ekartzen inolako eskubiderik sortzea onuradun izan daitezkeen alde, eta horiek ezingo dute kalte-ordainik edo konpentsaziorik eskatu, plana zehaztuta dauden baldintzetan betetzen ez bada.

La aprobación del Plan Estratégico de Subvenciones no supone generación de derecho alguno a favor de los potenciales beneficiarios, que no podrán exigir indemnización o compensación alguna en caso de que el Plan no se lleve a la práctica en sus propios términos.

2. KAPITULUA

CAPÍTULO 2

ONURADUNAK ETA ZER GAI-
ESPARRUTAN EMANGO DIREN
DIRU-LAGUNTZAK

BENEFICIARIOS Y MATERIAS EN
LAS QUE SE ESTABLECERÁN
SUBVENCIONES

5. artikulua.-

Artículo 5.-

Udalak diru-laguntzak emango dizkie pertsona, elkarte edo erakunde pribatuei norgehiagoka-erregimenean edo zuzeneko emakida bidez, balio publikoko edo interes sozialeko jarduerak egitea sustatzeko, edo toki-eskumenari esleitutako helburu publikoen lorpena bultzazeko.

El Ayuntamiento concederá subvenciones, mediante concurrencia competitiva o mediante concesión directa, a favor de personas, asociaciones o Entidades privadas con la finalidad de fomentar la realización de actividades de utilidad pública o interés social o para promover la consecución de fines públicos atribuidos a la competencia local.

6.artikulua.-

Artículo 6.-



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

Udalak, urtero, esparru hauetarako diru-laguntzak erabakiko ditu:

- Gizarte-ekintza.
- Kirolak.
- Euskara eta hezkuntza.
- Kultura.
- Tokiko ekoizleen nekazaritza eta abeltzaintza.
- Ingurumena.

El Ayuntamiento establecerá anualmente subvenciones en las siguientes materias:

- Acción social.
- Deportes.
- Euskera y educación.
- Cultura.
- Agricultura, ganadería de productores locales.
- Medio Ambiente.

3. KAPITULUA

OLABERRIKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK

3.1. -DIRU-LAGUNTZAK GIZARTE-EKINTZAREN ESPARRUAN

7. artikulua.-

GIZARTE-EKINTZARI dagokionez, Udalak diru-laguntzak emateko ildo hauek edukiko ditu plana indarrean dagoen bitartean:

I. Gizarte-zerbitzuen arloko jarduera duten elkarteak

a) Helburuak:

- Irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitate guztiek diru-laguntzak jaso ahal izatea, Olaberrian edo eskualdean jardunez gero. Hala egokituz gero, lurralde-esparrukoek ere horretarako aukera izan ahal izango dute, haien jarduerak udal-esparrua

CAPÍTULO 3

SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA.

3.1.-SUBVENCIONES EN MATERIA DE ACCIÓN SOCIAL

Artículo 7.-

En materia de ACCIÓN SOCIAL, el Ayuntamiento establecerá, durante el período de vigencia del Plan, las siguientes líneas de subvención:

I. Asociaciones que desarrollan su actividad en servicios sociales.

a) Objetivos:

- Acceder a las subvenciones todas aquellas asociaciones o entidades sin ánimo de lucro, que centren sus actividades en Olaberria y la Comarca. En su caso podrán optar las de ámbito territorial, cuando sus actividades superen el ámbito municipal y las necesidades o



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

gainditzen badute, eta beharrek edo eskariak ez badute eskatzen Udalak bitarteko espezifikoak jartzea.

demandas no requieran la dotación de medios específicos en el municipio.

— Elkarteeek egiten duten gizarte-jarduerari eusten laguntzea.

— Apoyar en el mantenimiento de la actividad social que desarrollan la Asociaciones.

— Elkartearen informazio-, sentiberatze, prestakunza eta zabalkunde-ekintza espezifikoak sustatzea eta haietan laguntzea.

— Promover y colaborar en acciones específicas de información, sensibilización, formación y divulgación de la Asociación.

— Elkarteen jardueraren xede diren kolektiboentzako interbenzio-programa espezifikoek garapenean parte hartzea.

— Participar en el desarrollo de programas específicos de intervención dirigidos a los colectivos objeto de la actividad asociativa.

b) Lortu nahi diren helburuak:

b) Efectos pretendidos:

— Gizarte-zerbitzuen esparruan diharduten elkarteei laguntzea.

— Apoyar a las Asociaciones que trabajan y desarrollan actividades en materia de servicios sociales.

c) Aurreikusitako kostuak:

c) Costes previsibles:

— 18.000,00 euro/urtero.

— 18.000,00 euros/año.

d) Finantzaketa:

d) Financiación:

— Finantzaketa Udalaren funts propioen bidez egingo da, Udalaren Aurrekontuko laugarren kapituluan zordunduta.

— La financiación se llevará a cabo con fondos propios del ayuntamiento, con cargo al capítulo cuatro del Presupuesto del Ayuntamiento.

II. Garapen-bideetan, gizarte-sentsibilizazioan eta ekimen humanitarioetan elkarlanean aritzeko

II. Programas de cooperación en vías de desarrollo, sensibilización social y acción humanitaria.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

programak

a) Helburuak:

— Ekonomiaren eta gizartearen garapen orekatuari mesede egitea, edo osasuna, hezkuntza, gizarte-arreta eta kultura lantzea, giza eta gizarte-eskubideak sustatzea, demokrazia eta gizabanakoen zein kolektiboen eskubideak garatzea, eta, betiere, ekintza horiek nolabaiteko iraunkortasuna eta egonkortasuna izatea.

— Komunitate onuraduneko kideen parte-hartzea eta prestakuntza sustatzea, eta tokian tokiko erakundeen garapena bultzatzea.

— Herritar onuradunaren garapen- eta kudeaketa-gaitasuna sustatzea.

— Kultura-inposaketa galaraztea, eta komunitate hartzailearen eta bertako ingurumenaren idiosinkrasia errespetatzea.

— Biztanle guztiek izatea, oro har, programez baliatzeko aukera eta, horretarako, gizarte-egoera ahulenean dauden sektoreak kontuan hartzea eta haien aukeren garapena bultzatzea.

— Proiektuaren hartzaile diren kolektiboen eta Olaberriko udalerraren artean harreman solidarioak bultzatzea edo finkatzea.

— Olaberriarrei informazioa ematea lankidetzaz, olaberriarrak horretaz sentiberatzea, parte-hartzaile eraginkorrek izan daitezen udal-

a) Objetivos:

— Favorecer el desarrollo económico-social equilibrado o se centren en áreas de salud, educación, atención social, cultura, promoción de los derechos humanos y sociales, desarrollo de la democracia, las libertades individuales y colectivas, siempre que estas actuaciones revistan cierta permanencia y estabilidad.

— Fomentar la participación y la formación de los miembros de la comunidad beneficiaria y potenciar el desarrollo de organizaciones locales.

— Fomentar la capacidad de desarrollo y de gestión de la población beneficiaria.

— Evitar la imposición cultural y respetar la idiosincrasia de la comunidad receptora y su medio ambiente.

— Poder beneficiarse de ellos la ciudadanía en general, teniendo en cuenta la particular situación de los sectores más desfavorecidos, promoviendo el desarrollo de sus oportunidades.

— Promover o consolidar relaciones solidarias entre colectivos destinatarios del proyecto y el municipio de Olaberria.

— Informar y sensibilizar a la población olaberriarra en materia de cooperación haciendo participe activo



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

mailan diruz lagundutako lankidetzaproiektuetan.

b) Lortu nahi diren helburuak:

— Udalerrian aurkeztutako lankidetzaproiektuen parte bat finantzatzea, eta laguntza ematea lankidetzaproiektuak gauzatzeko dituzten GKEei.

— Udal-mailan zer lankidetzaproiektu finantzatu diren jakinaraztea olaberritarrei eta olaberritarren artean parte-hartze eraginkorraren eta lankidetzaren aldeko kultura sustatzea.

c) Aurreikusitako kostuak:

— 40.000,00 euro/urtero.

d) Finantzaketa:

— Finantzaketa Udalaren funts propioen bidez egingo da, Aurrekontuko laugarren kapituluaz zordunduta.

III Hainbat udal zerga eta tasa ordaintzeak dakarren zama murrizteko edo deuseztatzeko laguntzak.

a) helburuak:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren (OHZ) eta ohiko etxebizitzako uraren eta zaborraren tasen sortzapeak dakarren karga ekonomikoa murrizteko edo deuseztatzeko balioko duen laguntzen udal-politika garatu eta aplikatzea.

2. Igerilekueko eta gimnasioko tasak

en los proyectos de cooperación subvencionados a nivel municipal.

b) Efectos pretendidos:

— Financiar parte de los proyectos de cooperación presentados en el municipio, y apoyar a las ONGs que desarrollan proyectos de cooperación.

— Dar a conocer a los olaberritarras de los proyectos de cooperación financiados a nivel municipal y fomentar una cultura de participación activa y de cooperación entre las personas olaberritarras.

c) Costes previsibles:

— 40.000,00 €/año.

d) Financiación:

— La financiación se llevará a cabo con fondos propios del ayuntamiento, con cargo al capítulo cuatro del Presupuesto.

III Ayudas para reducir o anular la carga que supone el pago de diversos impuestos y tasas municipales.

a) objetivos:

1. Desarrollar y aplicar una política municipal de ayudas que sirvan para reducir o anular la carga económica que suponga el devengo del impuesto sobre bienes inmuebles (IBI), de las tasas del agua y basura de la vivienda habitual.

2. Concesión de ayudas para el pago



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

ordaintzeko laguntzak ematea.

3. Kultura eta astialdiko ikastaroengatik tasak ordaintzeko laguntzak ematea.

b) Lortu nahi diren ondorioak: Udal zerga eta tasen sortzapenak dakarren karga ekonomikoa murriztea edo deuseztatzea.

c) Aurreikusitako kostuak: 5.000,00 euro urtero.

d)Finantzaketa:

— Udalaren beraren funtsetatik egingo da aurrekontuaren laugarren kapitulutik hain zuzen ere.

3.2. KIROL-ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK.

8. artikulua.-

Kirol-arloari dagokionez, Udalak diru-laguntzak emateko ildo hauek edukiko ditu plana indarrean dagoen bitartean:

I. Kirol-jardueren sustapena

a) Helburuak:

— Herritar guztiek kirola egin dezaten sustatzea.

— Bizi-kalitatea hobetzea kirolaren bidez.

de tasas de las piscinas y el gimnasio.

3. Concesión de ayudas para el pago de tasas por cursos de cultura y tiempo libre.

b) Efectos pretendidos: Reducir o anular la carga económica que suponga el devengo de diversos impuestos y tasas municipales.

c) Costes previsibles: 5.000,00 euros/año.

d)Financiación:

— La financiación se llevará a cabo con fondos propios del Ayuntamiento, con cargo al capítulo cuatro del Presupuesto.

3.2. SUBVENCIONES EN MATERIA DE DEPORTES.

Artículo 8.-

En materia de deportes, el Ayuntamiento establecerá, durante el período de vigencia del Plan, la siguientes líneas de subvención:

I. Fomento de las Prácticas Deportivas

a) Objetivos:

— Favorecer la práctica deportiva de todos los ciudadanos.

— Mejorar la calidad de vida por medio del deporte.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

- Gizarte-harremanak bultzatzea eta lagun berriak izatea.
 - Kiroi-ohiturak sortzea.
 - Kirola egiteko motibazioa handitzea kirol-programazio zabal baten bidez.
 - Kirol-partaidetza sustatzea eta bultzatzea.
 - Eskola-kirola sustatzea eta bultzatzea.
 - Minusbalotasuna duten pertsonentzako kirol-jarduerak sustatzea.
 - Kirol-jarduerak programatzen edo egiten dituzten mota guztietako erakunde publiko eta pribatuei laguntzea, kirol-lehiaketak edo -jarduerak antola daitezten.
- b) Lortu nahi diren helburuak:
- Udalerrian, kirola egiteko erosi beharreko kirol-materialaren zati bat finantzatzea.
 - Kirol-lizentzien kopurua handitzea.
 - Aisialdiko kirolarien kopurua handitzea.
 - Kirol-entrenatzaileak hobetzea eta haien kopurua handitzea.
 - Kirol-maila hobetzea.
 - Kirola egitean, euskararen erabilera sustatzea.
- b) Efectos pretendidos:
- Favorecer las relaciones sociales y hacer nuevos amigos.
 - Crear hábitos deportivos.
 - Por medio de una programación deportiva extensa, aumentar la motivación para la práctica deportiva.
 - Promocionar e impulsar la participación deportiva.
 - Promocionar e impulsar el deporte escolar.
 - Impulsar actividades deportivas dirigidas a personas con minusvalías.
 - Apoyar a todo tipo de Entidades Públicas o Privadas que programen o realicen actividades de carácter deportivo, para la celebración de competiciones o eventos deportivos.
 - Financiar parte de la adquisición del material deportivo para la práctica del deporte en el Municipio.
 - Aumento de las licencias deportivas.
 - Aumento de deportistas de ocio.
 - Aumento y mejora de los entrenadores deportivos.
 - Mejora del nivel deportivo.
 - Incentivar la utilización del euskera en la práctica deportiva.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

c) Aurreikusitako kostuak:
— 10.000,00 euro/urtero.

d) Finantzaketa:

— Finantzaketa funts propioen bidez egingo da, Aurrekontuko laugarren kapituluaren zordunduta.

c) Costes previsibles:
— 10.000,00 €/año.

d) Financiación:

— La financiación se llevará a cabo con fondos propios, con cargo al capítulo cuarto del Presupuesto.

3.3. -EUSKARA- ETA HEZKUNTZA-ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK

Euskarari eta hezkuntzari dagokienez, Udalak diru-laguntzak emateko ildo hauek edukiko ditu plana indarrean dagoen bitartean:

9. artikulua.-

I. Euskara

a) Helburuak:

— Helburu nagusia euskara sustatzea da, bizitzaren hainbat alorretan eta herrian bertan nahiz herritik kanpo egiten diren ekintzetan.

a) Lortu nahi dena:

— Hauekin lortu nahi dena da jendea euskarara erakartzea eta oro har euskararen normalizazioan eragiten duten ekintzak sustatzea.

c) Aurreikusitako kostuak:
— 8.500,00 euro urtean.

d) Finantzaketa:

3.3 -SUBVENCIONES EN MATERIA DE EUSKERA Y EDUCACIÓN

En materia de euskera y educación, el Ayuntamiento establecerá, durante el período de vigencia del Plan, las siguientes líneas de subvención:

Artículo 9.-

I. Euskera

a) Objetivos:

— El objetivo principal es promocionar el euskera en los diferentes ámbitos y en las actividades que se realicen tanto en el municipio como fuera de él.

b) Efectos pretendidos:

— Atraer la gente hacia el euskera y, en general, promocionar las actividades que tienen influencia en la normalización de dicho idioma.

c) Costes previsibles:
— 8.500,00 euros/año.

d) Financiación:



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

— Udalaren beraren funtsetatik egingo da aurrekontuaren laugarren kapitulutik hain zuzen ere.

— La financiación se llevará a cabo con fondos propios del Ayuntamiento, con cargo al capítulo cuatro del Presupuesto.

10. artikulua.-

Artículo 10.-

II. Hezkuntza

II. Educación

a) Helburuak:

a) Objetivos:

— Umeen heziketa osatzea eta hezkuntza formaletik harago hezten jarraitzea gure kulturaren ikuspegi osoago bat eman dezaten.

— Completar la educación de los niños y continuar educándolos más allá de la educación formal, para que tengan una perspectiva más global de nuestra cultura.

— Goierriko gazteen heziketa, prestakuntza, formakuntza zein garapen tekniko-soziala eta Goierriko eskualdearen eremu guztien garapena bultzatzen duten eskualdeko elkarteekin elkarlaguntzaren sustapena.

— Cooperar con las asociaciones comarcales dirigidas a la educación y preparación, formación y desarrollo técnico social de los jóvenes de la comarca del Goierri, así como del desarrollo en todos los ámbitos de la comarca del Goierri.

b) Lortu nahi dena:

a) Efectos pretendidos:

— Hauekin lortu nahi dena da gure herriaren izaera eta kultura propioa sustatzea eta umeei hori transmititzea.

— Promocionar la forma de ser y cultura propias de nuestro pueblo y transmitir las a los niños.

— Herriko zein eskualdeko haur eta gazteen prestakuntza indartzea.

— Fortalecer la preparación de los jóvenes y niños del municipio y de la comarca.

c) Aurreikusitako kostuak:

c) Costes previsibles:

— 25.000,00 euro urtean.

— 25.000,00 euros al año.

d) Finantzaketa:

d) Financiación:

— Udalaren beraren funtsetatik egingo da aurrekontuaren laugarren kapitulutik hain zuzen ere.

— La financiación se llevará a cabo con fondos propios del Ayuntamiento, con cargo al capítulo cuatro del



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

Presupuesto.

3.4. KULTURA-ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK

3.4 SUBVENCIONES EN MATERIA DE CULTURA

11. artikulua.-

Artículo 11.-

Kulturari dagokionez, Udalak diru-laguntzak emateko ildo hauek edukiko ditu plana indarrean dagoen bitartean:

En materia de cultura, el Ayuntamiento establecerá, durante el período de vigencia del Plan, las siguientes líneas de subvención:

I. Kultura eta erlijio elkarteak

I. Asociaciones culturales y religiosas

a) Helburuak: Batik bat herriaren eta beste neurri baten eskualdeko kultur jarduerak diruz-laguntzea.

a) Objetivos: coadyuvar en la financiación de actividades culturales del municipio principalmente y comarca.

b) Lortu nahi dena: Herritarrengandik gertu dauden kultur zein erlijio jarduerak bultzatzea.

b)Efectos pretendidos: Apoyar las iniciativas culturales y religiosas cercanas al sentir de la ciudadanía.

c) Aurreikusitako kostuak: 3.000,00 euro urtero.

c) Costes previsibles: 3.000,00 euros/año.

d)Finantzaketa:

d)Financiación:

— Udalaren beraren funtsetatik egingo da aurrekontuaren laugarren kapitulutik hain zuzen ere.

— La financiación se llevará a cabo con fondos propios del Ayuntamiento, con cargo al capítulo cuatro del Presupuesto.

3.5. NEKAZARITZA-ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK

3.5 SUBVENCIONES EN MATERIA DE AGRICULTURA

12. artikulua.-

Artículo 12.-

Nekazaritzari dagokionez, Udalak diru-laguntzak emateko ildo hauek edukiko ditu plana indarrean dagoen

En materia de agricultura, el Ayuntamiento establecerá, durante el período de vigencia del Plan, las



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

bitartean:

siguientes líneas de subvención:

I. Nekazal garapenerako elkarteak

I. Asociaciones de desarrollo rural

a) Helburuak: Batik bat udalerriko eta eskualdeko nekazal garapena xedea duten elkarteak bultzatzea.

a) Objetivos: Apoyo de las asociaciones cuyo objeto es el desarrollo rural del municipio principalmente y de la comarca.

b) Lortu nahi dena: Nekazal eremua babestea, nekazaritza diruzlagunduz.

b)Efectos pretendidos: preservar el medio rural apoyando económicamente al sector.

c) Aurreikusitako kostuak: 7.000,00 euro urtero.

c) Costes previsibles: 7.000,00 euros/año.

d)Finantzaketa:

d)Financiación:

— Udalaren beraren funtsetatik egingo da aurrekontuaren laugarren kapitulutik hain zuzen ere.

— La financiación se llevará a cabo con fondos propios del Ayuntamiento, con cargo al capítulo cuatro del Presupuesto.

II. Ierroa: nekazaritzarako eta tokiko ekoizleen abeltzaintzarako laguntzak

Linea II ayudas a la agricultura, ganadería de productores locales

a) Helburuak: Tokiko esne, gazta, lakteo, ardo, sagardo eta beste edozein ustategiren ekoizle diren nekazari eta abeltzainei laguntzea.

a) Objetivos: Apoyar a los agricultores y ganaderos que sean productores locales de leche, queso, lacteos en general, vino, sidra y cualquier otro cuya explotación se ubique en este término municipal.

b) Lortu nahi dena: Lortu nahi diren ondorioak: tokiko elikagaien kontsumoa sustatzea.

b)Efectos pretendidos: Fomentar el consumo de productos alimentarios locales.

c) Aurreikusitako kostuak: 10.000,00 euro urtero.

c) Costes previsibles: 10.000,00 euros/año.

d)Finantzaketa:

d)Financiación:



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

— Udalaren beraren funtsetatik egingo da aurrekontuaren laugarren kapitulutik hain zuzen ere.

— La financiación se llevará a cabo con fondos propios del Ayuntamiento, con cargo al capítulo cuatro del Presupuesto.

3.6. INGURUMEN-ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK

3.6 SUBVENCIONES EN MATERIA DE MEDIOAMBIENTE

13. artikulua.-

Artículo 13.-

Ingurumenari dagokionez, Udalak diru-laguntzak emateko ildo hauek edukiko ditu plana indarrean dagoen bitartean:

En materia de Medio Ambiente, el Ayuntamiento establecerá, durante el período de vigencia del Plan, las siguientes líneas de subvención:

I. fibrozementua kentzea titulartasun pribatuko eraikuntza eta instalazioetan.

I. Eliminación del fibrocemento en construcciones e instalaciones de titularidad privada.

a) Helburuak: udalerriko ingurumena hobetzen laguntzea, titularitate pribatuko eraikuntzetan eta instalazioetan fibrozementua kentzeko kudeaketa-kostuak eta lanen kostuak diruz lagunduz.

a) Objetivos: Contribuir a la mejora medioambiental del municipio subvencionando los costes de gestión y los costes de los trabajos de retirada de fibrocemento en construcciones e instalaciones de titularidad privada.

b) Lortu nahi dena: Natura-ingurunea babestea, udalerrian dagoen fibrozementu osoa desagerrarazten saiatuz.

b)Efectos pretendidos: Preservar el medio natural intentando que se elimine en su totalidad el fibrocemento existente en el municipio.

c) Aurreikusitako kostuak: 10.000,00 euro urtero.

c) Costes previsibles: 10.000,00 euros/año.

d)Finantzaketa:

d)Financiación:

— Udalaren beraren funtsetatik egingo da aurrekontuaren laugarren kapitulutik hain zuzen ere.

— La financiación se llevará a cabo con fondos propios del Ayuntamiento, con cargo al capítulo cuatro del Presupuesto.

II. Autoktonoak ez diren espezieen landaketak beste autoktono batzuekin

II. Sustitución de plantaciones de especies no autóctonas por otras



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

ordeztea.

a) Helburuak: natura-gunea hobetzen laguntzea, bertako landareak erosteko kostuak diruz lagunduz, hala ez direnak ordezkatzeko. Ez dira barne hartzen eskulanaren kostuak.

b) Lortu nahi dena: natura-ingurunea zaintzea, autoktonoak ez diren espezieen landaketan ordez, hala balira beste batzuk jarriz.

c) Aurreikusitako kostuak: 5.000,00 euro urtero.

d)Finantzaketa:

— Udalaren beraren funtsetatik egingo da aurrekontuaren laugarren kapitulutik hain zuzen ere.

autóctonas.

a) Objetivos: Contribuir a la mejora del espacio natural subvencionando los costes de adquisición de plantas autóctonas para sustituir a otras que no lo sean. No se incluye los costes de mano de obra.

b)Efectos pretendidos: Preservar el medio natural sustituyendo plantaciones de especies no autóctonas por otras que si lo sean.

c) Costes previsibles: 5.000,00 euros/año.

d)Financiación:

— La financiación se llevará a cabo con fondos propios del Ayuntamiento, con cargo al capítulo cuatro del Presupuesto.

5. KAPITULUA

PLANAREN KONTROLA ETA
EBALUAZIOA

14. artikulua.-

Ogasun Batzordeko burua den zinegotziak plan hau indarrean dagoen bitartean betetzen den kontrolatuko du.

Urte bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen, Ogasun Batzordeko burua den zinegotziak planaren aplikazioak eragindako aurrerapen maila, bere eraginak eta aurrekontuarekiko zein finantzar arloan dituen ondorioen

CAPÍTULO 5

CONTROL Y EVALUACIÓN DEL PLAN

Artículo 14.-

El Concejal Presidente de la Comisión de Hacienda efectuará el control del cumplimiento del presente Plan durante su período de vigencia.

Con anterioridad del 30 de abril de cada año, el Concejal Presidente de la Comisión de Hacienda presentará ante dicha Comisión un informe sobre el grado de avance de la aplicación del Plan, sus efectos y las



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

inguruan txosten bat aurkeztu beharko du.

15. artikulua.

Planaren indarraldia amaitutakoan, eta hurrengo egin baino lehen, Ogasun Batzordeko burua den zinegotziak memoria bat aurkeztu beharko du Ogasun Batzordean, eta horretan, gutxienez, hauek adierazi beharko dira: Plana zer neurritan bete den; emandako diru-laguntzek zer nolako efikazia eta eraginkortasuna izan duten lortu nahi ziren helburuetan; eta horren guztiaren ondorioak, diru-laguntzak emateko hurrengo plan estrategikorako iradokizunen proposamenak adieraziz.

EGINBIDEA: Honen bidez aditzera ematen da Plan honi hasierako onarpena eman zitzaiola 2023ko irailaren 27an egindako Osoko Bilkuran. Jendaurrean jarri zen 2023ko urriaren 6ko GAOn (194 zk.), eta ez zen alegaziorik aurkeztu. Behin betiko onartutako testu osoa 2023ko azaroaren 30eko GAOn argitaratu zen (231 zk.).

Olaberria, 2023ko abenduaren 3a.

Idazkaria

repercusiones presupuestarias y financieras que deriven de su aplicación.

Artículo 15.

Finalizada la vigencia del Plan, y antes de la elaboración del siguiente, el Concejal Presidente de la Comisión de Hacienda, deberá presentar ante la Comisión de Hacienda, una Memoria en la que se contemple, al menos, el grado de cumplimiento del Plan, la eficacia y eficiencia del otorgamiento de subvenciones en la consecución de los objetivos y efectos pretendidos y conclusiones, con propuesta de sugerencias para la elaboración del siguiente Plan Estratégico de Subvenciones.

DILIGENCIA: Para hacer constar que este Plan fue aprobado inicialmente en sesión Plenaria celebrada el 27 de septiembre de 2.023. Sometido a información pública mediante anuncio en el B.O.G. n.º 194 de 6 de octubre de 2023, no se produjeron alegaciones, publicándose el texto completo definitivamente aprobado en el B.O.G. n.º 231 de 30 de noviembre de 2.023.

En Olaberria, 3 de diciembre de 2.023.

El Secretario